

## IDAZMENA

**Ekintza komunikatiboa:** Dibulgaziorako aldizkari batean, irakurleengan eragiteko asmoz, gizartean kezka-iturri den gai baten inguruko erreportajea idaztea.

### “Hurtzaroa medikalizatzeko historiako kanpaina handienaren aurrean gaude”

“Hemendik urte batzuetara, haurrak gehiegi medikatzeagatik sortutako gaixotasunez kezkatzen hasiko gara, eta ea nola desegiten dugun egindako guztia”. Miguel Jara da mintzo dena, osasun gaietan espezializatutako kazetaria.



Hiperaktibitateari buruz Jara, hiperaktibitateagatik medikatuta dauden haurren portzentajea handia baita; hazten ari da, gainera. Garbi du kazetariak laborategi farmazeutikoak daudela atzean: gizartean kanpaina bortitzak egiten dituzte, psikiatra eta medikuak “erosten” dituzte, politikariengan eragiten dute edota ikastetxeetan diagnostikoak bultzatzen dituzte (modan dago irakasleak ikasle “mugituen” gainean egotea, eta, sarri, irakasleak aurrez diagnostikatuta iristen dira haurrak medikuarenera).

### “Herritarrak beldurtzeko modu planifikatua da, gurasoen sentimenduz aprobetxatzea”

Estrategiarik zikinenetakoa diagnostikatuen eta senideen elkarteak finantzatzea eta diseinatzea dela nabarmendu du, PANDAH plana kritikatu. “Seme-alabak jarrera oso mugitua duenean, guraso asko urduri jartzen dira, zerbait berria eta estresagarria da eurentzat, eta medikalizazioaren bidea hautatzen dute. Beharbada, kausak gehiago arakatu beharko lituzkete, baina guraso hauek ulertzen ditut, egoera batzuk nahiko kontrolagaitzak baitira. Atzean, ordea, beldurraren estrategia dago, gurasoak beldurtzen ditu industriak. PANDAH planean esaten da hiperaktibitatea duen eta medikatzen ez den umeak aukera handiak dituela etorkizunean gaizkilea edo perbertitu sexuala izateko. Herritarrak beldurtzeko modu planifikatua da, gurasoen sentimenduz aprobetxatzea. Eta dena, medikamentu baten kontsumoa sustatzeko helburuz”.

### “Sintomak gehiago erantzuten diote gure gizarte konplexuari, osasun-arazoei baino”

Miguel Jararen hitzetan, “guraso batzuek hiperaktibitatea gaixotasuna dela defendatzen dute, sutzuki; beste batzuek uste dute sintomak zerikusi handiagoa daukatela arazo sozialekin, gure gizarte konplexu eta hiperaktiboarekin. Egungo egitura sozialak arrastoa uzten du hurtzarroan, eta sintomak gehiago dira hezkuntza-, gizarte- eta familia-arazoen isla, osasun-arazoa baino”.

Alegia, ez ote da izango, hiperaktiboak baino, gaur egungo gizarte-eredu eta erritmora egokitutako haurrak direla?

Irmoa da kazetaria: “Hiperaktibitatea tratatzeko erabiltzen diren medikamentu gehienak arriskutsuak dira, menpekotasuna sor dezakete, ondorio oso larriak dituzte (epe luzera oraindik ikusi ez ditugunak) eta eraginkortasun oso gutxi dute”.

Miguel Jarari elkarrizketa

Argia astekaria (2016-08-18)

(Moldatua)